

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 14 erakundek sustaturiko 300 kultura-jarduera baino gehiago finantzatu ditu

*Ebatzi da Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren kultura-jardueretarako laguntzen deialdia; 129.304,64 euro banatuko dira*

Martes, 10 de junio de 2014

Nafarroako Gobernuak 14 erakunde nafarrek sustaturiko 300 kultura-jarduera baino gehiago finantzatu ditu berriki Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak ebatzi duen lehia askeko laguntzen deialdiari esker.

Deialdiaren bidez, Departamentuak 129.304,64 euro banatuko ditu honako erakunde onuradun hauen artean: Nafar Ateneoa (27.000 euro), Nafarroako Azterketa Historikoen Elkarte (10.065 euro), Asociación Amigos del Camino de Santiago en Navarra (3.500 euros), Orzadar Euskal Folklore Elkarte (1.936 euro), Nafarroako Bertsozale Elkarte (8.450 euro), Euskal Dantzarien Biltzarra (14.052,50 euro), Iruñeko Ganbera Abesbatza (3.973 euro) eta Nafarroako Argazki eta Zinema Elkarte (5.000 euro).

Honako hauek ere laguntzak jasoko dituzte: ATENA fundazioa (1.500 euro), La Caracola kultura-elkartea (4.930 euro), Jerónimo Ustariz Nafarroako Gizarte Historia Institutua (4.419,14 euros), Tiza. Komikia Sustatzeko Elkarte (25.000 euro), Asociación Cultural Amigos de Cascante "Vicus" (7.020 euro) eta IPES elkarte (12.459 euro).

Diru-laguntza jasoko duten proiektuek kultura-jardueren hainbat proposamen egin dituzte, besteak beste, argazkien zein arte plastikoen erakusketak, erakusketa arkeologikoak edo kultura-ondarearenak.

Konferentziak, konferentzia ilustratua, mintegiak, solasaldiak, mahai-inguruak eta eztabaidak dira finantzatu diren beste kultur jarduera batzuk. Horietan, arte plastikoen, zientzia eta teknologien, politikaren, zinemaren, euskararen, folkloaren, giza zientzien, literaturaren, hedabideen, gazteriaren, historiaren, erlijioaren, komikiaren edo Done Jakue bidearen gaiak aztertuko dira.

Honako hauek dira sustatuko diren bestelako kultura-jarduerak: bisita gidatuak, folkloaren hedapena, tailerrak eta liburuen aurkezpenak.

Azkenik, jardunaldi monografikoak ere finantzatu dira, esate baterako, Santiago Bideko XXVI. Jardunaldiak, V. Komiki Azoka, Cascanteko 9. aste erromatarra, Nafarroako historiaren VIII. Biltzar nagusia ("Navarra en un mundo global"), eta Mapamunditas 2014 erakusketa ("Las Consecuencias del Mapa").

Jarduera horiek guztiak 2014 izango dira, Iruñean batez ere, nahiz eta Nafarroako beste 24 herritan ere izango diren: Antsoain, Arbizu, Barañain, Bera, Carcar, Cascante, Corella, Elizondo, Erratzu, Etxarri-Aranatz, Gaintza, Igantzi, Ituren, Leitza, Lesaka, Mendaza, Otsagabia, Erriberri, Orisoain, Gares, Tafalla, Uitz, Atrarrabia eta Zubieta.